

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EIA²¹
Ingeniería de
Soluciones

ARTE LEHIAKETA

2020

EIA²¹-en Lehen Arte Lehiaketaren oinarriak



AURKIBIDEA

1. PARTEHARTZAILEAK	3
2. IZEN-EMATEAK	3
3. LANAK AURKEZTEKO EPEA.....	3
4. MODALITATEA	¡Error! Marcador no definido.
5. GAIA	4
6. EPAIMAHIA.....	4
7. LANAK HAUTATZEA	4
8. EPAIMAHIAREN ERABAKIA	4
9. ERAKUSKETA.....	¡Error! Marcador no definido.
10. SARIAK	5
11. SARIRIK JASO EZ DUTEN LANAK ITZULTZEA	5
12. OINARRIAK ONARTZEA	5

EIA21-EN 2020KO ARTE LEHIAKETA

Estudios e Ingeniería Aplicada XXI SAK antolatzen du lehiaketa hau, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearekin lankidetzan, artea ohiko ingurune akademiko eta artistikotik kanpo sustatzeko. Bada, EIA21ek Lehen Arte Lehiaketaren deialdia egiten du.

1. PARTE HARTZAILEAK

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean 2019/2020 ikasturtean ofizialki matrikulatuta dauden ikasleek parte har dezakete lehiaketan.

2. IZEN EMATEAK

Lanak titulu eta guzti aurkeztu beharko dira nahitaez; titulua, bada, atzealdean idatziko da, erraz identifikatzeko.

Lanekin batera, 2019/2020 ikasturteko matrikularen frogagiriaren fotokopia bat eta oinarri hauekin batera dagoen izena emateko orria aurkeztu beharko dira, biak ere gutun azal itxi batean. Gutun azalaren kanpoaldean, titulua adierazi beharko da (lehiaketara aurkeztutako lanaren atzealdean adierazitakoaren berbera).

Amaituta eta euskarri zurrun baten gainean erakutsiko diren bezala aurkeztu beharko dira lanak.

3. LANAK AURKEZTEKO EPEA

2020ko otsailaren 26an eta 27an aurkeztu beharko dira lanak, 10:00etatik 13:00etara, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko ikus-entzunezkoen platoan (1 eraikina).

4. MODALITATEA

Lehiaketara aurkez daitezkeen lanek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- ✓ Bi dimentsioko lanak izango dira, berriak eta originalak.
- ✓ Teknika eta formatua askeak izango dira, eta formatu handia positiboki baloratuko da.
- ✓ Parte hartzaile bakoitzak bi obra aurkeztu ahal izango ditu.
- ✓ Ezin da beste lehiaketaren batean saritu duten lanik aurkeztu.

5. GAIA

Edizio honetarako gaia askea izango da. Nolanahi ere, Euskadirekin edo motibo industrialekin erlazionatutako gaia izatea aintzat hartuko da.

6. EPAIMAHAIA

UPV/EHUren ordezkariak eta EIA21eko ordezkariak osatuko dute epaimahaia. Guztira, bost lagunek.

7. LANAK HAUTATZEA

EIA21ek, aurkeztutako lanen artean, lehiaketara onartzen direnak hautatuko ditu, eta bere Erandioko bulegoetan jarriko ditu ikusgai 2020ko martxoaren 5etik maiatzaren 8ra (Axpeko Erribera 11, C1 eraikina, M101).

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Epaimahaiak **2020ko maiatzaren 8an** emango du jakitera bere erabakia –publikoa izango da, eta ezingo da atzera bota–, EIA21en bulegoetan. Erabakiaren berri emateko prentsaurreko bat egingo da EIA21en instalazioetan, eta egun horretan bertan amaituko da erakusketa.

9. ERAKUSKETA

Hautatu eta saritutako lanak 2020ko martxoaren 5etik maiatzaren 8ra arte (biak barne) jarriko dira ikusgai, EIA21en bulegoetako 1. solairuan.

10. SARIAK

Hona hemen EIA21en kontura izango diren sari ekonomikoak.

- ✓ Lehenengo saria: 3500 €
- ✓ Bigaren saria: 1500 €
- ✓ Hirugarren saria: 1000 €

Sarioi dagokien atxikipena aplikatuko zaie.

Lehen, bigarren eta hirugarren sarien lan irabazleak EIA21en ondarean sartuko dira.

11. SARIRIK JASO EZ DUTEN LANAK ITZULTZEA

Ikusgai jarri ez diren eta/edo saritu ez diren lanak **2020ko maiatzaren 12an** jaso beharko dira UPV/EHUren Arte Ederren Fakultatean. Egun horretatik aurrera, antolakuntza ez da aurkeztutako lanak entregatzeaz arduratuko.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du guztiz onartzen direla oinarri hauek eta epaimahaiak, aurreikusi ez diren arazo edo egoerak ebazteko, har ditzakeen erabakiak.